# Parte hartu eta erabaki!

ESKOLA-KONTSEILUETARAKO HAUTESKUNDEAK 2026



## AURREZ AURREKOA EZ DEN BOTOA

### 1/ ZER DA AURREZ AURREKOA EZ DEN BOTOA?

• Ikastetxeko zuzendaritzari beste pertsona baten bidez helarazten zaion botoa.

• Postaz edo mezularitzaz bidalitako botoa.

### 2/ NORK ESKA DEZAKE?

• Ikasleen gurasoek edo legezko ordezkariek. Guraso bakoitzak botoa emateko eskubidea du.

### 3/ NOIZ EMAN BEHAR DUT?

Hauteskundeak baino egun bat lehenago helarazi behar zaio hauteskunde-batzordeari.

**Hauteskundeak azaroaren 5etik 23ra bitartean egingo dira. Kontsultatu data zehatza zure ikastetxeko zuzendaritzan.**

### 4/ ZER URRATS EMAN BEHAR DITUT?

• Zuzendaritzari aurrez aurrekoa ez den botoa emateko dokumentazioa eskatu (eskabidea eta bozketa txartela).

• Gutun-azal bat prestatu «Ikastetxeko Eskola-kontseilurako hauteskundeak..... Posta bidezko botoa» adieraziz. Agiri hauek aurkeztu behar dira:

i. Botoa posta bidez emateko eskubidea eskatzeko eskabidea.

ii. Bozketa txartela: hautatu behar diren ordezkarien bi herenen berdina den izen kopurua adieraz daiteke (adibidez, 9 ordezkari hautatu behar baditugu, gehienez 6 bozkatuko ditugu).

iii. Nortasun-agiri nazionalaren edo horren baliokidea den egiaztagiriaren (AIZ, pasaportea) fotokopia.


**info+ ehige.eus**

**BIGE: 944 16 93 60**
bige@bige.eus

**BAIKARA: 943 32 72 08**
baikara@baikara.eus

**DENON ESKOLA: 945 25 61 62**
info@denoneskola.eus

ehige
Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioa